



BEZERO KANALA

Batera enpresak, bezeroekin dugun komunikazioa hainbat kanaletan banatzen dugu, gure bezeroen adin-tartea oso handia baita. Horregatik, bezero guztietara iristeko eta guztien beharretara egokitzeko, kanal desberdinak egin ditugu:

1. GMAILA

Alde batetik, enpresako email bat daukagu, bertan bezeroek beraien **zalantzak argitzeko** aukera daukate. Batez ere, adin bat duten pertsonetara bideratuta dago, izan ere, askok ez dauzkate sare sozialik edota ordenagailurik. Gure enpresaren emaila hau izango da: bateraaztondo@gmail.eus



2. WEB ORRIA



Bestetik, web-orri bat daukagu eta bertan bezeroek **ekintzetan apuntatu** eta enpresako merchandising-a erosteko aukera daukate. Web-orri honetan, enpresaren informazioa agertzen da xehetasun guztiak azalduz. Aldi berean, ekintzetako argazkiak egongo dira eta begiraleen argazki zein datu pertsonalak azalduko dira. Web-orrian, bezeroek **proposamenak** egiteko aukera izango dute, ondoren guk irakurri eta hobekuntzak egiteko.


3. INSTAGRAM

Gure artean ekintzen argazkiak partekatzeko Instagrameko kontu bat daukagu (soilik nahi duten bezeroak azalduko dira, anonimotasuna bermatzeko). Aldi berean, kontu honetan gure **informazioa** azalduko da eta ekintzetara apuntatzeko estekak jartzen ditugu. Atal hau, batez ere **gazteei bideratuta** dago, izan ere, gaur egungo gazteek sare sozialetan orduak eta orduak igarotzen dituzte, eta iruditzen zaigu beste bideak ez dituztela erabiliko. [batera.aztondo](#) da gure instagram kontua.





4. TIK TOK



Tik tok kontua ere badugu, bertan bideo motz eta erakargarriak igoko ditugu, era horrela, bezeroen interesa piztuko dugu. Musika eta letra deigarriak erabiliz, jendearen arreta lortzea bilatzen dugu. Bertan, gure **ekintzak** partekatuko ditugu, munduan zehar zabal daitezten gure bideoak.

[batera.aiztondo](#) da gure tik tok kontua.

5. WHATSAPP

Jarraituz, beharrezkoa iruditzen zaigu WhatsApp bidezko komunikazioa edukitzea. Gizartean guztiok erabiltzen dugun plataforma baita. Honen bidez, **zalantzak** argituko ditugu eta baita **informazioa** ere partekatuko dugu. Taldeak sortzeko aukera paregabea da, eta horietan, nahi duenak konpromisorik gabe sartu eta atera ahal izango du, beste hainbat kanal baititugu.



6. TELEFONOA



Telefono zenbakia dugu, modu **bizkor** eta **azkarrean** zalantzak argitzeko. Pertsona helduek askotan zailtasunak dituzte mezuak idazteko; beraz, bezero guztien beharrei erantzutzeko, komunikatzeko bide hau sortzea erabaki dugu. Horrela, modu errazean eta zuzenean jarraitu ahal izango dute gurekin.

7. AURREZ AURREKO ARRETA

Ekintzetan gure bazkideak eta bezeroak ezagutzeko aukera izango dugu. Bezeroak ezagutzea garrantzitsua da, haien gustuak eta beharretara egokitutako zerbitzuak eskaintzeko. **Zorionez, pertsonalki ezagutzen ditugu** eta haien ideietan oinarrituta, gure ekintzak sortuko ditugu, ekintza hurbil eta pertsonalizatuak hain zuzen ere.

